

Donostia, 2022ko ekainaren 17a

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

### ETXEBIZITZAK DONOSTIAN DUEN EGOERAREN GAINEKO KONTROL MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui, indarrean den Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau dakar, LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANGINTZA BATZORDEAK maitzean izandako bileran etxebizitzak Donostian duen egoeraren gainean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Donostiak urteak daramatza etxebizitza eskuratzeko estutasun handiekin.

Alde batetik, etxebizitzaren prezioak, bai erostekoak, bai alokatzekoak, neurriz kanpokoak dira, eta gora jarraitzen dute gure hirian, baita Estatuko gainerako udalerrietan, pandemia zela eta, prezioak behera egin zuenean ere. Etxebizitzaren prezio garestiari babespeko etxebizitza falta handia erantsi behar zaio, hiran etxebizitza babestu aldetik den eskaintzak ez baitio eskariari erantzuten. Horrekin batera, ugaritu egin dira pisu turistikoak eta hotelak ere, hor dira putrefuntsak eta etxegabetze-eskaerak, bizitegi-erabilerako etxebizitza asko hutsik da eta abar. Eta horren aurrean, urte hauetan hirigintza eta etxebizitza aldetik egindako politikak arazo horietako batzuk handitu besterik ez du egin.

Etxebidek egindako azkeneko estatistiken arabera, 12.000 pertsonak baino gehiagok eskatu du babespeko etxebizitza Donostian, eta ez dugu ahaztu behar jende asko dagoela orain den babespeko etxebizitza mota eskuratzeko ahalmen ekonomikorik ere ez duena (ezta alokatuta ere) eta, beraz, zerrenda horietan ageri ez dena, eta horiek guztiek ere gainerakoek adina eskubide daukate etxebizitza duin bat izateko.

Eskaera horren aurrean, guk daukagun Plan Orokorra –gobernuak berak ere hala onartzen du– zaharkitua zen egin zenerako ere, 2010erako, gaurkoaren aldean beste egoera bat zelako orduan eta hari erantzuten diolako hark; eta, gainera, han aurreikusitako proiektu gehienak desaktibatuta geratu dira.

Horiek horrela, alternatibak bilatu beharra dago, batez ere Plan Orokorra berrikusi aurreko diagnostikoa lantzen ari garen garaia izanda; orain baita donostiarrek daukaten bizitegi larrialdiari proposamenak eta alternatibak planteatzeko unea. Premiazkoa da eginahala guztiak egitea bizitzeko tokia izateko eskubide subjektiboa betetzea bermatzeko, etxebizitzaren espekulazio-fenomenoa ezkutarazteko.

Diren prezio beldurgarri horiei aurre egin ezin dien jendea udalerritik kanpora ez botatzea lotzeko, etxebizitza hutsik ez izateko neurri batzuk planteatu behar zirela adierazi genuen guk batzordearen bileran, zeren, Eusko Jaurlaritzaren datu berrienen arabera, bai baitira 4.609 etxebizitza huts gure hirian. Orain urtebete, 2021eko uztaillean, mozio bat aurkeztu zen Osoko Bileran, Stop Desahucios-ek eskatutako mozioa, eta, haren bidez, udal gobernuari eskatu zitzaion haren esku zeuden baliabide guztiak erabiltzeko konpromisoa hartzeko, jenderik bizi ez den etxebizitzak alokairu sozialera ateratzea bultzatzeko, eta, hartarako, onartu berri zen 149/2021 Dekretuan (jenderik gabeko etxebizitzari eta etxebizitza mota horren inguruko ekintza sozialak betetzeko neurriei buruzkoa) jasotako tresna guztiak ahalik eta azkarren jartzeko martxan.

Urtebete pasa da eta Udalaren Etxebizitza Planean jasotako ekintzak bete beharra azpimarratzen jarraitzen dugu oraindik.

Era berean, udal gobernuak, hirian zer etxebizitza-eskaera eta bizitegi-larrialdi den kontuan izanik –gazte eta familia askok eta askok ezin du bizi-proiekturik aurrera atera hirian–, tresna batzuk aurkitu behar ditu Plan Orokorra berrikustekoan, hiri-lurzoruan etxebizitza babestu gehiago izateko bidea jartzeko modukoak.

Era berean, prezio igoera eta bizitegi larrialdia geldiarazteko, guk uste dugu Donostiako herritarren etxebizitza-premiei erantzuteak izan behar duela aurrena, Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak jartzen duena betetzeko hartara (etxebizitza izateko eskubide subjektiboa), etxebizitza turistikoak, hotelak, ostatu turistikoak eta antzekoak irekitzeko lizentzia gehiago eman beharrean; hiriaren 'interes orokorrak' negozio partikularren gainetik izan behar duelako, bizitegitarako erabilera murriztea eta, beraz, interes orokorrari kalte egitea dakartelako negozio horiek.

Hori dela eta, hauxe da gure

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio bizitoki aldetik den larrialdi egoera eta babespeko etxebizitza eskaria kontuan hartuta, etxebizitza babestutarako jartzeko udalerrian den etxebizitza babestuaren eskariari erantzuteko behar den eraikigarritasun guztia, eta, hala, BOEtarako jartzeko hiri-lurzoruan izaten den etxebizitza-sustapen guztietako eraikigarritasunaren % 60, gutxienez.
2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio hitz emateko eskueran dituen baliabide guztiak erabiliko dituela jenderik gabe diren etxebizitzak alokairu sozialerako jartzea bultzatzeko.
3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio blindatzeko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean jasotako etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa, eta atzera botatzeko Donostian egin nahi den espekulazio proiektu oro, donostiarren oinarrizko eskubideen aurka egiteagatik.

Haizea Garay Gallastegui

*Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia*